

Azoka BERGARA tzen



AURKEZPEN SAIOA
2014ko otsailaren 26a.



Bileraren helburu nagusia, AZOKA BERGARATZEN prozesua herritarrei aurkeztea izan da. Horretarako, udaletxeko pleno aretoa erabili da arratsaldeko 18:30etan.

▪ Nortzuk hartu dute parte bileran?

Hauek izan dira aurkezpenean parte hartu dutenak:

Izenak	
Beñat Lete Txintxurreta	Aitzol Gandiaga
Gotzon Iparragirre San Sebastian	Jexus Agirre Unamuno
Asier Latorre	Ibai Redondo Beitia
Ana Moñux Txintxurreta	Arturo Garitano Askasibar
Saioa Zumelaga Garate	Ion Ruiz de Egin
Mertxe Altube Belar	Jose Mari Izagirre Aia
Emeterio Elcoroberecibar Odriozola	Agurtzane Diaz uribide
Maribi Arce	Nere Aspiazu
Damian Madinabeitia Olabarria	Itxaso Fernandez Moreno
Aser Polvorosa	Maria Jesus Unamuno
Mila Elorza Laspiur	Estibaliz Barcala Rodriguez
Miren Aranzabal	Agurtzane Olabarria
Nerea Mendizabal Urreta	Igor Ezpeleta
Haritz Bikuña	Agustin Toledo
Iñaki Madinabeitia	Maren Belastegi
Pili Arin Milikua	Nagore Narbaiza
Marcos Gabilondo	Arianne Kareaga
M ^a Belen Arrondo Odriozola	Leire Iruin
Oihana Iñurrategi	Andoni Larrañaga
Maddi Larrea Ormazabal	Onintze Guridi

▪ Bileraren nondik norakoak.

Aurkezpen saio honek, honako gai ordena izan du:

1. Proiektuaren abiapuntua (Arianne Kareaga, udal gobernuko kidea).
2. Bagararen kokapena (Onintze Guridi, Bagarako teknikaria).
3. Azoka Bergaratzten prozesua (Andoni Larrañaga, Bagarako teknikaria).
4. Ekarpunen txanda: talde dinamika.
5. Saioaren gaineko balorazioa eta itxiera.

Udalarentzat estrategikoa den proiektu honetarako aurreikusten diren lan ildo eta erronka nagusiak azaldu, eta adostutako plangintza aurkeztu da ppt baten laguntzarekin.

▪ Talde dinamikan jasotako ekarpenak.

Behin aurkezpena eginda, azaldutako prozesuaren gaineko lehen ekarpenak jaso nahi izan dira talde dinamika baten bitartez, azokaren gaineko lehen gogoeta bat egitearekin batera. Horretarako, honako galderak luzatu zaizkie parte hartzaileei:

1. Zeintzuk dira prozesuaren gaineko zure iritzi/gogoeta/proposamenak?
2. Nola ikusten duzu azoka?
3. Zer egingo zenuke azoka biziberritzeko?

Hauek dira galdera bakoitzaren gainean jaso diren ekarpenak:

PROZESUAREN GAINEKO IRITZI/GOGOETA/PROPOSAMENAK.

Prozesua bera:

- Beharrezkoa.
- Ideia polita eta ona.
- Iritzi guztiz positiboa.
- Dinamikoa: Herritarrak elkartzeko eta mugitzeko modu bat.
- Positiboa, komertzioetatik kanpo beste zerbait dela eta lanean jartzea.
- Zalantza: emaitzarik ez reflejatzea. Askotan horrelako prozesuak sustatzen dira, oso helburu politak dituztenak, baina ondoren emaitzarik ez da ikusten (kajoi batean gelditzen den txosten batekin amaitzen dira).

Parte hartzea:

- Prozesua kontzentratua iruditzen zait eta ona da, askotan parte hartzetik praktikara salto handiegia dagoelako.
- Prozesuaren inguruan denon parte hartzeari emango nioke garrantzia.
- Erronka handia daukagu herri eragileak inplikatzeko.
- Arnas luzeko lan bat da; kultura, kontsumo ohituretan eragin nahi delako.
- Horrelako prozesu bat, beharrezkoa ikusten dut azokaren egoera ikusita. Elkarlanean aurrera eramateak eta elkarlaneko "herritik herriarentzat" ikuspegiak asko erakartzen nau.
- Positiboa iruditzen zait parte hartze prozesu bat abian jartzea, ekarpen desberdinetatik beti irtengo direlako ideia aberatsenak.
- Polita. Bizi garen momentuan herri mugimendu bat sortu nahia positiboa da.

Bizimodu eta kontsumo ereduak:

- Niri iruditzen zait errora doan proiektu bat dela; estrukturala: aisialdia, kontsumoa, elikadura, ekonomia.
- Kontsumo bideak: ohitura kontzientziarekin hartu. Azoka zer izatea nahi dugun definitzea. Zer da biziberritzea (Merkatal zentru bat bihurtzea?). Potentziatzea, izaera bat ematea eta erreminta bat izatea beste balore batzuk eta kontsumo eredu bat bultzatzeko.
- Gure sustraietarako (lehen sektorea, tokikoa, sasoikoa...) bueltatze bat antzematen zaio, bizi dugun momentuan garrantzitsua dena.
- Bere zailtasuna ere ikusten diot daramagun bizitza erritmoa tarteko.
- Tokian tokiko produktuak, ez dut uste 1.sektorerara mugatu beharko liratekeenik. Bertako komertzioa, adibidez tokian tokikoan sartzen dut.
- Baserritarrak (ekoiztu eta saltzen dutenak) salmenta zuzena egin dezatela. Bitartekaririk gabe izan beharko litzateke.

Azokaren osotasuna:

- Interesgarria eta beharrezkoa. Espazio fisiko batetik abiatuta, espazio sinbolikoa eta aldi berean funtzionala, alternatiba oso bat sortzeko proposamena.
- Haur eta gurasoentzako espazio baten sorrerak aberastu egingo du eta perfil desberdinetako erabiltzaileak hurbilduko dituela uste dut.
- Hezkuntza, tokiko garapena, bertako produktuak..... kanpora proiektatzeko gune izan behar da azoka, eraldaketa sozialeko tresna bat.
- Zuzeneko, bertako eta kalitatezko produktuak?, Batzuk ekoizle edo banatzaile dira?. Zuzenean bertakoa den eta kalitatezko bezala ezagutzen dugun produktu

eta zerbitzuak berez balio gehigarri asko dauka. Baina hau erosleari transmititu beharko litzateke. Azoka herrira gerturatzea.

- Baserritarrak: gehienak langintzatik alde eginda ditugularik, gutxi gelditzen zaigu beraiengandik ikasteko.
- Ikuspegi integrala izatea behar da.
- Heziketa/kultura aldaketa.
- Udaletik, ekintzetarako partida.

NOLA IKUSTEN DUZU AZOKA?

Eraikina:

- Triste, hutsik, desaprobetxatuta.
- Ez da erakargarria. Iluna eta hotza da.
- Eraikina ondo dago.
- Lagata egon den eraikin bat izan da.
- Kanean dauden bezalako komertzioak, denak toki berdinean batera egotea ez litzake helburu izan behar (bere izaera izan behar du).
- Aste barruan oso hotza da.
- Kokaleku bikaina duen eraikina. Oso gutxi erabiltzen dena.
- Espazioa gutxi erabilia dagoela uste dut. Eraikin handi bat merkataritza eremu ahul baterako.
- Azoka espazioaren ikuspegi global falta.
- Eraiki zenetik, erabilpen gutxi duen udal eraikina.
- Ez dut ezagutzen. Akaso, behin edo egongo nintzen. Ez naiz Bergaran bizi.
- Leku ona, aparkalekua bertan.
- Aparkalekua: ordutegia agian ez da aproposena. Azokara doanarentzat 3 ordu gehiegi da.
- Leku aldatetarekin, "boikot txiki bat" jasan du eraikinak. Merkatu zaharra herriko plazan zegoen, eta herritarren gehiengoaren nahiaren aurka aldatu zen gaur egun dagoen tokira.

Erabiltzaileak: erosle eta saltzaileak.

- Jendea batez ere zapatu goizetan joaten da, bestela hutsik egoten da. Merkatu egunetan salbu, jendeak ez dauka azokara egunerokotasunean joateko joerarik.
- Erdizpurdiz, ez naiz tremendista, gehiago eman dezake, baina ez dago hilda.
- Zapatuan, deskargatzeko arazoak. Atzeko aldean dagoen parking-a karga eta deskargarako den arren, jendeak ez du errespetatzen eta egunero egoten da kotxez beteta.
- Postu finkoak gutxi dira eta gehiagora joan baino, urritzen joango direla aurreikusten dut.
- Postu desberdin gehiago behar dira.
- Tokian tokiko produktuei, sasoikoei eta baserritarrek sortutakoei lehentasuna emango nieke bertan.

- Lehen sektorea aukera bat bihurtu da.
- Baserritar gehiago ikustea gustatuko litzaidake.
- Azokako baserritarren artean lotura sortzea.
- Astean zehar baserritarrak joatekotan arratsaldean izan beharko litzateke, goizetan jendea lanean dago.
- 1. sektorea zaila astean zehar egotea.
- Azoka ez izatea salmentarako lekua bakarrik; baserritarren mundua, honen garrantzia, jendea elikatzearen baloreak bertan presentzia izatea nahiko nuke.
- Merkataritza ikuspuntutik ikusita, gure baserritarren eta nekazarien produktuak saltzeko gunea. Gure produktuak (garestiagoak) Vs. Merkeena (edozein lekukoa). Azoka Vs. Gune komertzialak.
- Kanpoan baserritarrak libre saltzen ibiltzen dira.
- Postu finkoegatik dago egun guztia zabalik. Kanpokoak barrura sartu beharko lirateke.
- Astean zehar postu batzuk itxita egoten dira.
- Azoka nahiko "aparte" sentitzen da. Agian bai itxuran eta bai gardentasunean, hau da, postu bakoitzeko produktuen inguruan maiz informatzea ongi letorkio.
- Azokara joaten den jende gehiena edadetua izanik, azoka gainbehera ikusten dut, erreleborik ez diodalako ikusten. Jende gazte oso gutxi. Bereziki hirugarren adinekoen tradizio gune bezala, folklore hutsa bihurtzeko arriskuan.
- Gazteak eta herriko sektore desberdinak azokaren parte izan beharko lukete.
- Gazteak ez dira joaten. Erosketak astean zehar egiten dituzte, eta gune handietarako joera dute.
- "Merkaua" bergaran ezagutzen dan moduan.
- Eskaintza zabala dago. Produktu asko, etxerako otarra osatu daiteke.
- Begiekin jaten dugu, ez kalitatea baloratuta.
- Kontsumo eredia aldatzen ari da.
- Plazer bat da bertan erostea. Umeentzat ludoteka plazerra den heinean, azoka plazerrarekin lotuko dute.
- Bertako ekoizpen gutxi dago, eta mundu globalizatu batean bizi garela ulertu beharra dago.
- Lehen eguneroko erosketetarako zen. Orain azoka zabalik dagoen ordu gehienetan, jende gehiena lanean dago. Ohiturak aldatu dira.
- Bizitza estilo batekin lotuta dago (urtean edozer jaten dugu).
- Hezkuntza da gakoa! Sentsibilizazioaz gain, etxetik hasi beharko ginateke.
- Sentsibilizazioa beharrezkoa, hezkuntzarako.
- Joaten dena, kontzienteki doa.
- Eskatu beharra/preziorik eza, zailtasunak eroslearentzat.
- Herrian presentzia gutxi dauka.
- Merkatua = Zapatua.

ZER EGINGO ZENUKE AZOKA BIZIBERRITZEKO?

Orokorrak:

- Proposatutako 3 ildoak landu eta praktikara eramanez gero ederra litzateke.
- Egoteko, hitz egiteko, hausnartzeko eta kontsumitzeko gune izan beharko litzateke.
- Debate sakonagoa beharrezkoa da.
- Zinegotzi naizen aldetik proposamenak botatzeko aukera zabalik daukat. Herritarrekin gure ideiak kontrastatzeak kezkatzen nau. Bertakoei, zuzenean inplikatura daudenei entzun eta euren arazoak eta irtenbide proposamenak entzun eta aintzat hartzea da garrantzitsua. Horretan ikasi behar dugu, udalak edo udalgintzak ere kultura aldaketa bat behar du.
- Erakargarriagoa egin, bai eraikina eta bai barruko jarduera. Itxuran: argiago, koloretsuago.
- Bertatik bertarako filosofiaz, azoka gune itxitik atera eta Bergaran errealitate bat izatea, herrira zabaldua.
- Udaletik, ekintzetarako partida batekin lagunduta joango da prozesua.

Ekintza zehatzak:

- Hilabetero barazki/fruta baten hilabete berezia izendatu.
- Kanpoko gunea ere "bizitu". Ume-gurasoek ez dute erabiltzen.
- Kafetegia bat jarri.
- Marka propioa. Zergatik azokan erosi eta ez beste nonbait?
- Artisautza, bigarren eskuko txokoak, truke azoka...(kontsumoa).
- Pintxopotea bertako produktuekin.
- Barazkiak prestatzen ikasteko ikastaroak.
- Esne makina jartzea.
- Asteazkera, arratsalde batean baserritarrek joatea. Azokara joateko arrazoia beraien baitira gehienbat.
- Truke, 2. eskuko azokak, moneta txikia.
- Ikastaroak. Barazkiak nola prestatu, enbotatu...
- Eskulanak/artisauak bertan txertatu.

Kontsumo Ohiturak:

- Sentsibilizatu. Kontsumo ohituren sentsibilizazioa.
- Atxikimendua sustatu beharra.
- Herriko denda, taberna eta jendartea orokorrean kontzientziatu beharko litzateke agroekologiaren basearekin. Baserritarren balorea, honen eskubideak eta bizitza duina. Elikadura burujabetza. Nekazari edo baserritarren eta gainontzeko herritarren arteko harremana bultzatu, jakintza konpartitu.
- Gazteak sartu bai, baina ogia erostera soilik. Ogiak fama du, beraz ezagutzen dute, baina berau erosi eta irten egiten dira. Ez dituzte beste produktuak baloratzen. Sentsibilizazioa landu behar da. Kontsumo eredia, bertakoa, kalitatea.

- Postu gehiago zabaldu. Aukerak eman prezio aldetik. Baserritarrak gehiagotan etor daitezela. Kontsumo taldeak merkatu barruan errepartua egitea.
- Azokari beste balore batzuk eman (kontsumo eredua).
- Bergarako elikadura burujabetza bultzatu.
- Kontsumo dinamika berezi bat sortu.
- Hezkuntza; gazteen "kultura" aldaketa.
- Ikuspegi integrala.

Osatu / Osagarritasuna:

- Kulturgune antzeko bat egitea, non hitzaldiak, liburu aurkezpen, eta dena delakoak egongo diren; eta ahal den heinean, herriko artista, abeslari, musikari, idazle, antzerkigile eta bestelakoen lanak bere gunea edukitzea. Jendeak ohitura hartzen badu azokara joateko, han kontsumituko du.
- Marketing gehiago. Ekintzak egin.
- Ludoteka eta beste ekimen proposamenak, berez azokan ohikoak ez direnak, oso positiboak ikusten ditut. Azoka beste modu baten ikusi eta jendea erakarriko duela uste dut. Hala ere, azokan berezkoa dena indartuko nuke: postu finkoak indartu eta postu berriak bultzatzea. Adibidez postu berriak zabaltzeko ahalik eta erraztasun gehien ematea.
- Aisialdia. Espazio fisiko aldetik interesgarria pentsatzen zait sinergia sortzea, baina hasiera baten oso interesgarria pentsatzen zait hausnarketa bultzatzea. Presazko mundu honetan zein da gure haurren aisialdian daukagun inplikazioa? Ze balore? Naturarekin ze kontaktu? Ez bihurtzeko gaur egungo munduan erreproduktzio hutsa.
- Herritar kolektibo desberdinentzako espazio bilakatuz eta batez ere jende gaztea erakartzeko ekintzak bultzatu. Azoka beste jarduera batzuetarako erabiltzea.
- ASPACEk saskigintza erakutsi eta saldu dezake; ludotekan adibidez..
- Egitura finko baten aukera (jarduera askotarako). Eraikinaz gain, barruko ekipamendua erabiltzeko aukera.
- Ikas bidaien inguruko ekintzak txertatu.
- Ludotekarena oso ideia ona, jendea eramango du azokara.

Salmenta:

- Eskaintza garbia: jendeari ezagutarazi bertan aurki daitezkeen produktua.
- Produktuen jatorriaren gaineko informazioa garatzea.
- Bertako produktuen merkaturatzea bultzatu.
- Postu berriak zabaltzeko erraztasunak eman.
- Merkatal zentroa izan daiteke. Eskaintza osatu.
- Ekoizle gazte batzuk prezioak jarrita dituzte.
- Bertako produktuen balorizazioa.

- Kontsumo taldeek barruko mahaietan banatu beharko lukete.
- Ekoizleek beraien eskaintza gehiago landu beharko lukete. "buelta" eman beraien eskaintzari (postuaren itxura, presentzia, informazioa...).
- Ekintzak egin jendea erakartzeko. Kultur guneak badaude herrian, baina bertaratzea positiboa litzateke.
- Merkataritza mahaiak desfilea San martin plazan. Azokara gerturatu ahalko litzateke edota azoka plazaratu.

■ Balorazioak.

Behin talde dinamika amaituta, saioaren gaineko balorazio bat eskatu zaie parte hartzaileei, saioaren gaineko aspektu positibo eta negatiboak azpimarratuz:

Positiboak	Negatiboak
Dinamika oso aberatsa.	Konkrezio gutxi ikusi diot aurkezpenari.
Ikuspuntu desberdinak entzutea.	Txandaka "Esaldi bat bakoitzak" egingo nuke.
Denbora gutxian, pentsatzen nuena baino gehiago egin izanaren sentrazioa.	Zarata gehiegi.
Taldea txikiak parte hartzea erraztu dute.	Ordutegia: saio desberdinak ordutegi desberdinekin.
Azalpen argi eta zehatzak.	Ordutegia.
Positiboa de ezagun ez direnekin solasaldia egitea gai interesgarrien inguruan.	Taldea txikiagotan hobeto egongo litzake, jendeak gehiago hitz egiteko.
Gustura egon naiz.	Motz izan dala iruditu zait.
Zerbait aterako den inpresioz noa.	Oso jende gutxi. Pena bat.
Aberasgarria.	Azalpena argia, baina informazio larregi.
Ikuspuntuak hausnartzeko positiboa.	Ez da komeni (denboraz) luzeegiak izatea hurrengo elkarraldiak.
Oso ondo dena.	Hitz egiteko maila nahiko zaila zen.
Ondo egon da.	Eskatuko nuke hizkuntza erraztea.
Oso gustura egon naiz. Gauza asko azaldu dira interesgarriak.	
Ondo.Gustura egon naiz.	

<p>Jendiak ideia onak ditu.</p> <p>Oso ondo egon da.</p> <p>Apustu polita. Ongi.</p> <p>Egon naizen taldian zerbait egiteko gogua ikusi dot. Aurrera bolia.</p> <p>Oso ondo. Positiboa.</p> <p>Talde desberdinak elkartzea asmatzeko. Taldeko lanak oso positibua.</p> <p>Holako ekimenak herrira zabaltzia. Herritarren ahotsak garrantzia eukitzia.</p> <p>Oso ondo. Azokak bultzada behar du.</p> <p>Saioa ondo egon da. Partehartzea ere bai. Azalpena ona izan da.</p> <p>Talde txikixetan batzea lehenengo egunetik gure kezka/zalantza/aportazioak jasotzeko.</p> <p>Talde dinamika interesgarria. Aukera ona ideia desberdinak entzuteko.</p> <p>Ilusioa.</p> <p>Aniztasuna.</p> <p>Aurkezpen arina eta argia izan da. Denbora azkar joan den sentrazioa.</p> <p>Aurkezpena (ulergarria).</p> <p>Dinamika/metodologia.</p> <p>Giro eraikitzailea.</p> <p>Jasotako lehen ideiak.</p> <p>Ondo lehenengo hasialdia.</p> <p>Hasi gara!</p> <p>Jendea erakartzeko interesgarria.</p>	
---	--

<p>Arlo oso desberdinetako partaideak.</p> <p>Bilera ondo egon da.</p> <p>Informazioa eta burujabetzea, azokak daukan arazoak eta ideiak aztertzea.</p> <p>Aurkezpena ondo.</p> <p>Prozesua beharrezkoa.</p> <p>Partehartzea ona.</p> <p>Ordutegia ona.</p>	
---	--